

KARAKORUM

MENDIETAN ZE HAR

GURPILEKIN BIDAIARI

Malkoak begietan. Kirgizistango Sari Tash herrixkatik Txinara, nire eskuinean lagun ditudan Pamir mendi erraldoiek bidaltzen didaten haize bortitzen eragina ote? Edo lagun on bati agur esateagatik sortutakoak? Minutu bat, bost, ordu bat edo egun pare bat, badira bidean egindako iraupen ezberdineko lagunak. Batzuk laster desagertzen dira nire bizitzatik, beste batzuk, ostera, luzaroan geratzen dira eta bihotzean aurkitzen dute bizilekua. Batzuk, zein besteak bidaiaren parte garrantzitsuak dira.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Eneko Redondo Ikazuriaga
(Gernika-Lumo, 1972)

Mendiko bizikletarekin, eskalatzen edo oinez mendian gora naturaz gozatzea maite du; horrez gain, judoa praktikatzen du 4 urte zituenetik. Ahal duen bakoitzean bidaiatzera irteten da, bidaiaria horietako gehienak bizikleta gainean eta era autonomoan egin ohi dituelarik.



Egun pare bat pasatu dira Migueli agur esan eta Txinara bidean nagoela, Sari Tashetik Kashgarera doan bidean hain zuzen ere. Berriro bakarrik ibiltzeak eta kanpatzeak, nire pentsamenduetan murgiltzera narama. Ez dut inor aurkitzen bidean eta nire patua zein izango ote den darabilt buruan. Helduko ote naiz Karakorum mendietara? Izango ote dut mendikate hau zeharkatzeko kemenik? Ezin jakin aurrera egin ezean.

Irkeshtam izena du hurbil daukadan mugak, Txinako ate erraldoia. Bertara heldu eta segituan somatzen dut ez dela momentu bateko gauza izango muga hau zeharkatzea. Izan ere,

Karakorum mendietan behera



Batura glaziarrera ibilbidea

famatuak dira txinatar funtzionario tematiak. Muga askotan bezala, eskanerra egiteko gailua dute hemen ere. Daramadan guztia atera arazi didate eta makina horretara doan zintan utzi dut dena. Bakarrik nagoenez funtzionario guztiak ditut inguruan, dena ikusten eta ukitzen, baina imajina ezazue nire aurpegia zinta horren gainean bizikleta jartzea eskatzen didatenean. Nola azaldu lagunak; txoropito hauek nire bizikleta tunel txiki horretatik pasatzeko asmoa dute! Tolestu, makurtu, gorantz, beherantz..., hamaikaxo posizio probatu eta gero, ez dira ohartzen ezinezkoa dela. Alajaina!

Karakorum mendikatea, Himalaiaren mendebaldean dago, Pakistan, India, Txina, Afganistan eta Tajikistanen artean

Hiru orduko ahaztezinako esperientzia eta gero, bizikleta gainean nago berriro ere, nekaztuta baina pozik Kashgarera bidean. Hiri handi batera bizikleta gainean sartzerakoan ohikoa da infernuko azken kilometro batzuk egitea, hirietako inguruetan pilotzen diren atondu gabeko auzoak igaro behar direlako eta, trafiko zoro eta kaotikoarekin borrokatu behar da eta. Kashgarren kasuan bitxikeria bat gertatu

zait. Milaka scooter-motoekin partekatzen dut nire ibilbidea eta dudarik gabe, %90 elektrikoak dira. Hau ezustekoa! Bai lagunok, zarata eta ke gutxiago. Kontua da, ez ditudala entzuten niregana hurbiltzen direnean eta susto batetik bestera nabil. Badirudi, txinatarrak gu baino aurreratukoak daudela mugikortasun jasangarriaren arloan, Kashgarren behintzat.

Kashgar edo Kashi Uigurren hizkeran, Txinako Xinjiangeko Uigur Eskualde Autonomoan dago eta basamortuko oasi-hiria da. 205.000 biztanle inguru ditu eta oso lurralde lehorra da, klima kontinentalekoa (urtarrilean -6°C eta uztailean 26°C , batzaz beste). Pamir mendien oinean dago, Tian Shan mendiak eta Kunlun mendiak elkartzen diren gunean. Kokapen honi esker, garrantzi handia izan du historian, Asia erdialdeko karabana bidea izan zen eta. Gozamina da aintzinako merkatarien kaleetatik paseatzea. Ehunka urte atzerago narama nire irudimenak eta liluratuta noa kale meharretan barrena. Gaua pasatzeko hostel merke batera heltzerakoan, alde zahar guztia birrindu eta etxebizitzak eraikiko dituztela esan didate. Merkatarien oihuak, karroen egurrezko gurpilen soina eta, ekialdetik etorritako airean nahasten diren espezia usainak betirako desagertuko dira antza denez.

Karakorum mendikatea, Asia erdialdeko mendi sistema da. Himalaiaren mendebaldean dago, Pakistan, India, Txina, Afganistan eta Tajikistanen artean hedaturik. Turkieraz



legar beltza esan nahi du, izan ere, bertako glaziar gehienak harri txingorrez estaliak daude eta. 500 kilometro inguruko luzera du eta, poloak kenduta, glaziar gehien duen munduko eskualdea da. Lau mendikate dira, harkaitz kristalinoz eta sedimentuz osatuak, ipar-ekialdetik hego-ekialderako norabidea dutela. Mendi garaiena 8611 metro dituen Dapsang da, K2 ere deitua.

Karakorum hitza entzuteak ere beldur pixka bat ematen dit eta, era berean, imanaren erakarpena eragiten du nigan. Urrunean ikusten ditut mendiak, izugarri handiak, izugarri ilunak. Beraien artean dago Pakistanera igarotzeko muga ere, jarraituko dudana bidea alegia. Nire buruarekin zintzoa izateko, oraindik ez dut ulertzen nork demontre konbentzitu nauen holako zerbait bakarrik egiteko! Gauza

bat badakit, pedalei eragin ezean betirako geratu beharko naizela Kashgarren beraz, KAO4 (egunen baten azalduko dizuet nire bizikletaren izenaren jatorria) eta biok osatzen dugun ekipoa konfiantza osoa jarri eta aurrera!

Pakistaneko eta Txinako agintarien arteko giroa ona da eta, horren adierazgarri da tratu komertzial kopurua gero eta handiagoa dutela. Merkantziak aurrera eta atzera eraman



Hunza harana

beharrean, aldapan gora eta behera dabiltzala esango nuke. Herrialde bien arteko merkataritza garatzeko, munduan dagoen asfaltaturiko errepide garaiena igaro behar dute, Khunjerab izeneko igarobidea bitarteko. Hau da ikusten ditudan amaigabeko obra guztien arrazoia. Infernua! Horixe da bizikletan maldan goran eta galtzarbetaraino hautsez beteta arnases-tuka joatea. Kamioiek ez dute niganako ino-

lako errukirik. Aurreratzen edo, gurutzatzen ditudan bakoitzean, gelditu beharra izaten dut hautsarekin itsututa eta itota, arnasekin gabe. Kilometroak egin ahala, prentsa erraldoi bat balira bezala, mendiak estutzen doaz eta erreka eta bidea baino ez dira gelditzen, kanpatzea ezinezkoa egiten zaidalarik.

Azkeneko argi izpiarekin heldu naiz Bolkou lakura, atzean utzi dut Gaizi errekek

sortutako amaigabeko arroila, inpotentziaren eta nekearen malkoak ere bertan utzita. Ilunpean jarri dut kanpin denda, litro bateko dutxa hartu (zorroan daramadan ura alegia) eta, zopa bero bat hartzea dut ametsik gozoena. Pertsona batek jasan dezakeen neke maila zenbaterainokoa izan daitekeen pentsatuz hartu dut lo munduan galdutako bazter honetan. Egunsentiarekin batera, indar, ilusio eta animo berriak ageri dira, eta inguruaz jabetzerakoan, beste ezusteko handi bat: Kulun mendikateko mendirik garaiena den Kongur Shan, 7649 metroko erraldoia. Bera eta ni aurrez aurre. Hotzak eta haize bortitzak argi uzten dute, ozen, nor agintzen duen, eta ni inoiz baino txikiagoa, hutsalagoa sentitzen naiz erraldotasun horren mendean.

Tashgurkam herria da Pakistan herrialdera igarotzeko Txinako azkena

Tashgurkam herria da Pakistan herrialdera igarotzeko Txinako azkena. Bertatik, Sosterako (Pakistan) bidea bizikletaz egitea ezinezkoa dela esaten didate. Khunjerab igarobidea (4880m) autobus bitxi bateko leihotik ikusi beharko dudala ohartu naiz berehala. Lehendabizi, leihatila txiki batean ticketa erosi eta gero, immigrazio bulegora joateko esan didate. Bertan, goiz horretan berrehun bat pakistandar (ikasturtea bukatu eta beraien herrira oporretan doazenak), errusiar bat eta ni elkartu gara. Denok ikusi dugu 30 plazadun autobus zaharkitua eta denok dakigu ticket horren balioa zein den: autobusa hartu eta alde egitea edo beste egun batez Tashgurkamen gelditzea. Bertakoen animo beroak ikusita, nik bigarrena aukeratu dut. Eta lehen aukeratu duten askok ticketa ordaintzeaz aparte, betondo handituak, kristalekin egindako ebakiak eta sekulako jipoiak jaso dituzte ordain gisa. Sekula ikusi gabeko borrokaren lekuko pribilegiatua izateak txundituta utzi nau egun osorako. Pakistandar zoroak!

Errekak behera egin duela eta, apurtutako eremu hori oinez igarotzeko moduan dagoela esan digute

Handik bi egunera, nire ticketarekin noa immigrazio bulegora. Galdeketa eta erregistroak jasan eta gero, etzanda joateko burdinazko egiturak baino ez dituen autobus zaharrean nago. Dena lasai eta ezustekorik gabe. Bat batean,

KARAKORUM




Kirgizistango neskatila

pasaporteak seigarren aldiz eskatu eta immigrazioko irteerako zigilua ezeztatu digute. Zer demontre gertatzen da orain? Galdetu eta pakistandar baten esanetan, errekek bidea desegin du eta oraingoz ezin dugu Pakistanera joan. Amesgaiztoa! Marmotaren eguna bezala, bost egun beranduago berriro autobusean nago. Errekak behera egin duela eta, apurtutako

eremu hori oinez igarotzeko moduan dagoela esan digute. Pakistandik etorriko dira gure bila Sostera eramateko. Eta halaxe da, errekaen indarra zenbatekoa izan den ikusteak txundituta utzi nau. Zortzi metro sakonerako eta 300 metro luzerako errepedea irentsi du. Bidean ez dago inolako garraibiderik eta birritan pentsatu gabe, alprojak bizikleta gainean jarri eta, sekula imajinatu gabeko egoeran aurkitu naiz: errepede osoa niretzat Karakorumeko highwayean zehar. Eta gero gerokoak!

Hegan bezala noa mendietan behera. Momentuaren euforia eta balentria aurpegian islaturik, Sosteko militarren kontrolera heldu arte. Eta ohi bezala galdeketa luzea. Zigilua jaso eta aurrera. Passu herriaren ondoan nago, bertatik munduko 5. glaziarrik handiena, Batura glaziarra ikustera joateko bide atsegin dago. Nik 10 orduko ibilbide bat inprobisatu dut, baina laburragoa egitea ere posible da. Hurrengo egunean, mendi eta glaziarren artean galdutako Shimsal herrira hurbildu naiz. Bidea ez dela ona esaten didate. baina bertara

Simshalera bidean



heltzerakoan ostatu txiki bat dagoela. Aurreko egunean jarritako kanpin denda mugitu ere ez dut egin, bizikletaren zama arinduz.

Shimsaleko bidea ezin diot inortxori ere gomendatu. Harrizko bide traketsa eta ehunka metroko amildegia metro pare batera! Horrelaxe egin dut bidea Shimsaleraino. Bide erdian, 30 kilometrora gutxi gora behera, bidearen konponketen ardura duten hiru gizon ikusi ditut etxetxo batean. A ze lan beldurgarria! Heltzerakoan, harrera ezin hobea egin didate bazkari oparo batekin. Aurrera eginez, beste behin ere bidea desagertu egin da. Oraingo honetan, goitik behera datorren ur jario beldurgarriak argi utzi dit ez dagoela beste aldera pasatzerik. Beraz, buelta hartu eta berriro aurkitu



Kongur shan mendiaren ondoan

dut hirukotea. Bide horretan, bi 4x4 darabiltzate Shimsaletik Passura joan-etorriak eginez egu-nero, taxi modura. Beraien ustez, bizikleta auto gainean jarri eta, Shimsalera heltzea posible dela jakin ondoren, nire burua ibilgailuaren barruan ikusi dut beste behin Simshalera bidean.

Bigarren aldiz egiten dut ur jarioaren lekutik hirukotearen etxexora doan bidea, baina oraingo honetan gauez. Pneumoniak jota banengo bezala heldu naiz bertara eta denak batu gara dahl eta txapatiak jateko. Eskerrak bide zaintzaileri! Nekeak jota nago eta etxolan guztiontzako lekuri ez dagoenez, Nissan Patrol zaharren atzeko aldean egin behar izan dut lo, freskotan, estima handiz ditudan nire lo-zakua eta kanpin denda Passu herrian utzita. Passura bidea

egiteko leku askotan gelditu beharra dago, goitik behera datozen harrien hotsa entzun ditut noiznahi. Fedeak ere laguntzen du holakoetan, norbaitengan edo zerbaitetan sinestea, datozen harriek nire burua aukeratu beharrean beste txokoren bat izango dutelakoan helmuga. Nire kanpamendura osorik heltzea ospatzekoa da eta, arroz eta azenarioz osatutako afari oparo batekin eskertu dut nire patua.

Karimabad hiriburua 2400 metroko altueran dagoen herria aintzinako Hunzako printzerriaren zentroa da

Karakorum highway izeneko bideak, eten-gabe egiten du hegoaldera. Hala ere, badago eten garrantzitsu bat, Gulmit herrixkara heltzerakoan bidea desagertzen da, ur azpian alegia. Bidea Attabad lakuan murgiltzen da, 2010eko urtarrilaren 4an, mendiak behera egin zuen eta 20 pertsona hiltzeaz gain, Hunza ibaia oztopatu zuen 5 hilabetez. Horrek 20 kilometroko lakua sortu zuen. Dagoeneko bidaia honetan garraio bide ugari erabili behar ko ditudala somatzen dut: bizikleta, aulkirik gabeko autobusa eta txalupa oraingoz.

Hunza ibaiak ematen dio izena haranari, Gilgit-Baltistan eremu barruan dagoen leku ezaguna. Karimabad hiriburua 2400 metroko altueran dagoen herria da eta aintzinako Hun-



Kunjerab pass, 4880 m

zako printzeriaren zentroa izan zen 1974 urteraino. Karimabad aldapatsuaren kaleetan zehar egiten dut gora eta behera jakiak erosi eta kafetxo batekin gorputzari atsedendaldia emateko. Minapin herria daukat hurrengo helmuga. Bertan, bizikleta utzi eta Rakaposhi mendiaren oinarrizko kanpamendura oinez igotzeko irrikaz nago. Rakaposhi hitzaren esanahia "horma distiratsua" da bertakoen hizkuntzan, baina Dumani (hodeien ama) izenez ere ezagutzen

da. 7788 metro dituen mendi dotore honek, Diram mendiarekin batera konpartitzen du glaziar luze eta arriskutsu bat. Badago aukera alde batetik bestera egiteko, baina bakarrik egitea ez zait ideia ona iruditzen, amaigabeko arrakala batean jausteko aukera ugariak ikusita.

Motxila bizikleta gainean jarri eta hegoalderantz noa pedalei ezer gutxi eraginez. A ze plazerra ahalegin gutxiarekin haizeak dakartzan usain gozoez gozatzea edo soineko zu-

riarekin jantzitako mendiak mirestea. Bada, beste guztien artean, nagusi den bat Gilgit herriatik ondo baino hobeto ikus daitekeen mendia: Nanga Parbat. Aurkezpenik behar ez duen mendi itzela! Hurbil daude bizi poza eta heriotza bateratzen dituzten amaigabeko malda beldurgarriak, hainbat eta hainbat balentria ezagutu dituzten horma latzak.

Islamabad eta Rawalpindi, bata bestearen ondoan, lehena negozioren hiria eta bigarrena, berriz, pakistandarren bizileku zoroa

Gilgitera heldutakoan, bero handiagoa dagoela somatu dut. Sostetik nagoen tokira hainbat metro jaitxi ditut eta abuztua dela kontutan izanik, aurrerantzean zer datorren badakit. Gilgit herrian mendietako bakea botatzen dut faltan eta egun pare bateko atsedendaldia egin eta gero, aurrera egitea pentsatu dut. Oraingoan autobusez. Khoistan eremura sartzeaz nago eta orain arteko kontrol militarrek bikoiztu egin dira, talibanen kontrolpean baitago. Chilaz he-

Karakorum highway



rrira heldu orduko, aurrera egitea debekatu didate. Nork esango zidan konboi eta eskoltarekin egingo nituela hurrengo 300 kilometroak!

300 kilometro hogeitortu orduan. Sosega ezin neko erdi lo eta erdi ametsetan, beheko aldea ikusi ezin den amildegietan behera imajinatzen dut nire burua autobus, bizikleta, eskoltaren arma beldurgarria eta pakistandar kuadrilla hura, denak nahasturik. Dena txikituta imajinatzen dut, musikagailu beldurgarri hura izan ezik. Sinetsi ezinezko bolumena duen musika kirrinkari hark burua eztanda egiteko zorian utzi nau Islamabadera heltzerako. Goizaldeko 4:30ak dira eta ez dakit nora demontre joango naizen lo egitera. Rickshaw bat gelditu eta igo orduko, alde egin dit, berak arazorik ez duela nahi esanez. Bigarrenari ez diot aukerarik eman eta, hurbilen dagoen hotelerako bidea erakusteko eskatu diot. Ordu pare bat eta hiru hotel beranduago, zeharo nekatuta, beste hotel batean eman didate logela. Aurreko hirurak beteta daudela esan didate, baina inprobisatutako nire gida berriak atzerritarrik onartu nahi ez dutela azaltzen dit.

Islamabad eta Rawalpindi, bata bestearen ondoan, lehena negozioren hiria eta bigarrena, berriz, pakistandarren bizileku zoroa. Nik bigarren hau maite dut, benetako kaosa.

Imajinatu ere ezin dugun nahasketa honetan murgiltzea dut jarduerarik gustukoena, baina ez horrenbeste nire sabelarentzako. Milaka bakteria ezezagunek nire gorputza inbaditu dute eta guztiz ahulduta utzi naute aste pare baterako. Jokoz kanpo oraingoz.

Beroak jota eta hanka ganean nire gorputza eutsi ezinik, Lahore hiriraino heldu naiz. Termometroak markatzen dituen 47 graduek birrindu egin naute eta aukeratu dudana hostelak ez dit utzi behar dudana atsedena hartzen. Ez du argindarrik ezta ur korronterik ere, baina ez daukat besterik aurkitzeko energiari eta egun pare bat ohean etzanda eman ditut ia ezer jan gabe, izerditan blai. Hirugarrenean, hiria bisitatzeko indarra berreskuratu eta laugarrenean Indiara doan muga pasatzeko erabakia hartu dut. Herri hauen arteko gatazkak direla eta, aurretiaz dakit ez dela gauerdiko ahuntzaren eztula izango beste aldera pasatzea.

Zazpi ordu behar izan ditut Indiarako muga pasatzeko; horietatik ia lau atxilotuta, Indian debekatuta dagoen nire gailu satelitala dela eta. Hiru urteko kartzela zigorra behin eta berriz gogoratzen didaten hiru morroi hauek ez dute nire tripen egoeraren gupidarik. Eta oraindik ez diet aipatu Kashmir eremu gatazkatsura joateko asmoa dudala. Ai lagunak, izan ere, edonor izan

daiteke espia edo James Bond ezkutu bat, bizardun bizikletero ahul eta baldar bat ere.

INFORMAZIOA

- 2015 urteko uztaila eta abuztua bitartean egin nuen bidaiaren zati hau, bidai luzeago baten atal bat da.
- Urte horretan bidaiaren atal asko berritzen ari ziren, gaur egun asfaltatutako bide ona dago ia bere osotasunean. Karakorum highway bidetik irten ezkerro, lurrezko eta harrizko pistak dira.
- Ur edangarria bihurtzeko filtroa eramatea gomendatzen da.
- Akanpatzeko ez dago inolako arazorik, bertako biztanleak oso abegitsuak dira.
- Erregalatu zidaten mapa zahar bat erabili nuen, gaur egun badaude eguneratuagoak.
- Bide printzipalaren inguruan dauden hainbat glaziar eta mendiak ezagutzea merezi du, Batura glaziarra eta Rakaposhi mendiaren oinarritzko kanpamendua adibidez.
- GPSa eramatea gomendatzen da.
- Beharrezkoa ez izan arren, nik egun pare baterako jatekoa eramaten nuen ezustekoak saihesteko.
- Bidaiaren inguruko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, gurpilekinbidaiari.com bloga bisitatu.
- Galderei erantzuteko, enered@hotmail.com helbide elektronikoa erabiliz jarri zaitzake nirekin harremanetan. Gustuko dut nire esperientzien inguruko hitzaldiak ematea.

Kashgarreko kaleetan

